

Begoñazpi Buletina



2021eko urtarrilaren 22a

MATRIKULA EPEA

Ondo etorri, familia barriok!

Hasi da 2021-22 ikas-turterako matrikulazio kanpaina. Familia bakoitzagaz bakar-kako alkarrizketak izan eta gero, heldu jaku matrikula egiteko unea. Sendi honeek

irailetik aurrera geurturtean izango doguz, hau da, geugaz batera Begoñazpi Ikastolako familia osotuko dabe. Webgunean dozue ikusgai gure hezkuntza proiektua.



WEBGUNEA

Elikadura osasungarria hizpide izateko webgunea

Begoñazpi Ikastolak webgune barria dau, hau da, sitea, hau elikadura osasungarria izateko programa azaldu, gomendio orokorrak emon edota familia osoarentzako errezeta orokorrak egiteko iradokizunak eskaintzeko bideratuko dogu.



SARTU SITEAN



Abian da 'Barrikuntzaren Arbela- Podcasta'

Podcastak, audio formatuan, internetik deskargatu ahal izango diran aldizkako argitalpen digitalak dira. Ikastolak, komunikazio tresna honen bidez, albiste guztiak kontatuko deuskuz. 'Barrikuntzaren Arbela Podcasta' laster izango dogu webgunean.



DBHko ikaslea, 'Big Van Ciencia' lehiaketako finalean

DBH 1. mailako ikaslea dogun Maddi Castillok, Bayer, Save the Children eta Park Cientific alkarteak bezalako enpresen laguntza dauan Big Van Ciencia antolatutako 'zientzia-monologoak' lehiaketan parte hartu dau.



GEHIAGO IRAKURRI



Ikasleek First Lego League lehiaketa prestatzen dabe

DBH 4. mailako ikasle talde bik FLL lehiaketan parte hartuko dabe. Zientzian eta teknologian oinarrituz eta gure komunitatea aktiboagoa edo parte-hartzaileagoa izatea helburu izanik, 'Replay' izeneko erronkari aurre egin beharko deusie.